

PuLunPe

163. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



BERTSOAK

**Hamalau ofizio, hamabost mixeri
hori gertatzen baitzaio beti Goñiri:
Lehenengo arrantzale, gero sukaldari
zahartu eta ondorean bertsolari.
Udan taloa egiten nabil ferietan,
eskulangintza dela eta erakusketan.
Frantzian izan nintzen, Garrüzeko festetan,
hantxe bai saldu nuela taloa benetan.
Zazpi senide gara, baita ere bi alaba baditut ondoan.
Sei bilobatxo eder nire inguruan,
baina senarra aspalditik dut beste munduan”.**

**“Taloa, esnea eta urdaia
euskaldunen jakia
ni horrekin naiz hazia
motza eta lodia
izena bakarrik det Luzia”**

Gure txokoak ikasiz, euskaraz solastu

Haurrak bezala, euskaraz ikasten ari diren helduak ere ikasturtea bukatzeaz dira. Aizarotzen (Basaburua), Erizen (Atetz), Larraintzarren (Ultzama), Ziaurritzen (Odieta) eta Olaguen (Anue) daude taldeak, IKA-koa lehenengoa eta AEK-koak besteak.



Bada, euskara ikasten duten bitartean, gure txokoak ere ezagutzen ari dira talde zenbait, euskaraz solasteko txangoak eginez. Oraingoan, Odietako taldeak bailarako txoko ezkutu eta eder bat erakutsi nahi digu guztioi:

“Anotzibartik Anotzerako bidean dago Aingiriturri, izen bereko errekan. Anotzibartik kilometro batera ezkerrean joan behar gara, sagarrondo baten ondoan. Hortik 100 metrora iritsiko gara iturri-
ra.

Hor iturburu bat dago, eta esaten da azaleko gaixotasunak sendatzen dituela. Sanjuanetan edo bezperan aurpegia eta azala garbituta, azaleko gaixotasunak kenduko zaizkizu. Dirua ere botatzen da, eta apaizak elizarako jaso.

Errekan putzu naturalak daude ere, oso politak direnak eta bainatzeko balio dutenak. Inguru polita da.

Gainera, Anotzibar sorgintzarekin loturiko herria da. Maria Juana deituriko emakume bat bizi zen aspaldi. Sorgin izateaz akusatu zuten eta torturatu eta gero hil egin zuten. Azken urteotako inauterietan bera da pertsonaia nagusia, eta inki-sidorea da erretzen dutena.”

BIOLETA, ROBERTO, NAIARA, DIONISIO ETA LUR.

Iturburuan idatzita dago Odietako FRANCISCA DONCEL ZALBARI eginiko elkarrizketa bat (1896an Anotzibarren jaioa). Ama Sarasibarkoa (Esteribar) zuen eta aita Larraintzarkoa (Ultzama), baina amaren lehen senarra eta izan zituzten lau umeak Anotzibarren jaioak ziren. Besteak beste honakoa dio Aingiriturri buruz:

“Xan Juan egunen! bueno, San Juan bezpera... arratsëan? pasten tzen jende aunditz emendik! aunditz! Aingiriui-, Aingiriturrire; orai etzaio kasuik it(t)en beño, orduen bai. Pues, an... klaro! gero eramaten tzuten... aurre perdin, batek etzuela, badaxuela xarna! bertzeak granoak! eta ola, ta eman arara? t'an ederki garbitu? te xekatzten tzen oiala? utzi an... in biar tzan. Ta reco-? beris (...), ta artzen tzuen gero apezak, elizerako, eskuek sekatzeko ta ola...”

“Sí, an iten tzien; ni enaiz, akordatzten naiz? ba... aur bet d'emendik, Gerendiandik, itxe ortaa, kartzen tzuten, len, bena bete de granos! beteik tzego? ta... an, bedratzi dei-ias? karri orrara, ta or garbitu.”

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txur-dan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.
Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U
Lege gordailua: NA 721/93

2017KO MAIATZAREN 26AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



AUTODEFENTSA FEMINISTA

TAILERRA. ——— IZENA EMATEKO
Debalde AZKEN EGUNAK!

16 urtetik gorako emakumeentzat

exu-erasoez defendatzen ikastea.



Proba ezazu eskola ordu bat DOAN Prueba una hora de clase GRATIS
ekainak 16 de junio

ordua	maila / nivel	hora
10:30	oinarrizkoa básico	17:00
10:30	tartekoa intermedio	17:00
12:00	aurreratua avanzado	18:30

LARRAINTZARKO
ZENTRO ZIBIKOAN

* arratsaldean haur-zaintza zerbitzua
por la tarde servicio de guardería

izena eman ekainaren 14a baino lehen
apuntate antes del 14 de junio

948 604 704
larraun@aec.eus

eta ekainaren 19a baino lehen datorren ikasturterako
aurrematrícula egiten baduzu %5eko deskontua eta ordainketa
mailuagoez izango duzu

y si te prematriculas para el próximo curso antes del 19 de junio
disfrutarás de un 5% de descuento y una opción de pago más
flexible.

RUGBY AREN GAUPASA 17

MILA ESKER
ERRUGBIA
BULTZATZEGATIK!!

¡MUCHAS GRACIAS
POR IMPULSAR EL RUGBY!



BRT
BASKO RUGBY TALDEA

"Ondiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak..."

ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!

Hilabeteke lehenengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17.00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!

Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmusel@gmail.com"

euskar
bizi



XINBILI XANBALA HAUR ESKOLA
ESCUELA INFANTIL XINBILI XANB.

MATRIKULAZIO DATA BERRIAK

NUEVOS PLAZOS DE MATRICULACIÓN

Aurrematriculazioa– Prematriculación: maiatza 10-16 mayo

Matrikulazioa– matriculación: Ekaina 19-23 junio

Eskaerak, dokumentazio guztiarekin batera, haur eskolan aurkeztu behar dira

La solicitud junto con toda la documentación se entregará en la escuela infantil.

**KULTUR ETA KIROL
DIRU LAGUNTZA DEIALDIA**

**CONVOCATORIA SUBVENCIONES
CULTURA Y DEPORTE**



HELBURUA:

- Sormen artistiko eta kulturalak sustatzea
- Jarduera fisikoak sustatzea

ONURADUNAK:

- Irabazi asmorik gabeko elkarteak, erakundek eta partikularrak

OBJETIVO:

- Promover la creatividad artística y cultural
- Promover actividades físicas

BENEFICIARIO:

- Entidades, asociaciones y particulares sin ánimo de lucro



Informazio gehiago Udaleko bulegoetan
Más información en las oficinas del Ayuntamiento



Ultzamako Udala
Ayuntamiento
de Ultzama



Ultzamako plantaren kasua: **puzzlearen** piezak bat egiten hasi dira

Nafarroako Kontu Ganberak argitaratu zuen txostenak lurrikara politikoa sortu du Nafarroako politikan eta zer esanik ez Ultzamakoan. Iraizozko plantaren proiektuaren hastapenen inguruko alor guztietan izandako "irregulartasunak" agerian jarri zituen Ganberak. Gaia oso konplexua bada ere, azken mugimenduek testuingurua ulertzen laguntzen dute. Hona puzzlearen pieza solte batzuk.



Txostena, 6 lerrotan

-Azpiegituran 4,5 milioiko inbertsioa egin da, eta horren zati nagusia diru publikoetatik atera da.

-Plantaren aurreproiektua, proiektua eta zuzendaritza obrak egin ondoren kontratatu ziren. Udalak ez zuen errespetatu kontratazio publikoaren irizpide nagusiak: publizitatea, gardentasuna eta diskriminaziorik eza.

-Kontratua beste enpresa baten esku uzteko prozesuan ere ez zen legea bete, ezta enpresak eginiko azpikontratuekin ere.

-Ordainketa bikoitza: Milioi bat euroko faktura bat bi aldiz ordaindu zen kontzeptu beragatik.

-Kontratazio-mahaiko bi kide proiektua egina zuen ingeniari-tza enpresako ordezkariak ziren. Enpresak es-leipendunak eginiko eskema batzuk sartu zituen projektuan eta, gainera, Bioenergia Ultzama sozietatearen kapitalean eta enpresako organoetan parte hartu zuen.

-Diru-laguntza bikoitzak: Industria Departamentutik eta Landa Garapena eta Ingurumen Departamentutik.

Politikarien erantzunak



-ARANTXA MARTINEZ, Ultzamako alkatea: "Ezin dugu beste aldera begiratu hain gai larriaren aurrean". Eta "hasieratik salatu-takoa baino larriagoa" da txostena.

-ADOLFO ARAIZ, EH Bildu: "Ondorioztatu daiteke dena prestatu zutela adjudikazioa enpresa jakin batek irabaz zezan". Eta "aspalditik ez zuen Kontu Ganberak hain txosten larria kaleratu".

-GUZMÁN GARMENDIA, PSN: "Gure alderdi politikoak ikerketa komisioarekiko konpromisoa adierazten du"

-MARISA DE SIMON, IU: "Ikerketa guztiz justifikatuta dago eta beharrezkoa da, ikusita balorazioen larritasuna". "Erantzukizun politikoak" eskatu zituen.

-MARI CARMEN SEGURA, UPN: Ikerketa honen aurrean "mesfidantza" azaldu zuen: "Lauko go-bernukoek epaile izatera jostatzen ari dira, haiei bakarrik interesatzen zaion gaietan". UPNkoek, gehitu zuen, "epaileei lan egiten uzten diegu".



Utzamako EH Bilduko zinegotziak, Adolfo Araizekin batera eskainitako prentsurrekoan

Osoko Bilkura Ultzaman:

Maiatzaren 11n udala elkartu zen osoko bilkuran eta beste gaien artean, EH Bilduk aurkeztuta, onartu zen AUko zinegotzi Patxi Perezen dimisio eskaera aberzaleen bozei esker. Perez ez zen udaletxera agertu.

-Hedabideetan deklaraturakoaz harago, Ultzamako Bildukoekin informalki hitz eginda, lasaitu handia hartu dutela esan digute: hilabeteak egon dira oso konplexua den gai bat ikertzen eta Kontu Ganberaren Txostenak dezente argitu du testuingurua. Hala ere, oso kezkatuta daudela esan digute, alde batetik, abeltzainen arazoak konpondu ez direlako eta beste-

tik aspaldi gaizki kobratutako diru-laguntzak baliteke-elako itzuli behar izatea.

Agrupación Ultzamaren erantzunak:

-Guztiz faltsua da Agrupacion Ulzama udal taldeko inork, iraganean edo gaur egun, deliturik egin egin duenik, ordezkari gisa duen betebeharraren.

-Patetikoa da, Comptos Ganberaren txosten batean babesturik, EH Bildu udal talde honen kide baten dimisioa eskatzea, bere izena ez baita inoiz agertzen txostenean

- Ikusten hasiak gara abertzaleen eraginkortasunik ezaren ondorio ekonomikoak

Erantzunik gabeko galderak



Ultzamako Udalak bere garaian gaizki emandako diru-laguntzak itzuli beharko ditu? Zenbat suposatuko du horrek?

-Ez dago batere argi oraindik Levenger enpresaren papera operazio guzti honetan:

Nola da posible makineria hain denbora gutxian izorratzea?

Zergatik eraman zuen plantaren mantentze lanaren kontratua modu eskusiboan?

Gauzak horrela ikusita, ez al da ikertu beharko Larraintzarko Biomasa instalazioko guztia?

Nork eta nola ordaindu zuen abeltzainek bere garaian Txekiara egindako bidaia?

2012ko abuztuan izandako istripu ekologiko larria zergatik gertatu zen?

Ultzamak, Basaburuak eta Odietak mankomunitate bat sortzeko intentzioa zuten, baina sinatu ez. Proiektuaren paperetan, aldiz, sortuta egongo balitz bezala agertzen da. Diru-laguntzak kobratu al ziren "mamu" mankomunitate baten izenean?

Atetz **eremu** euskaldunera



Pauso garrantzitsua egin du Atetzek euskararen normalizaziorantz. Nafarroako lehen udalerria da eremu mistotik eremu euskaldunera pasatzea eskatu duena.

Euskararen legeak jasan duen aldaketatxoaren baitan, Nafarroan udalerri ugari eskatu dute eremu ez euskaldunetik eremu mistora pasatzeko, eta parlamentuak erabaki beharko du horren inguruan. Tartean Tafalla, Erriberri, Gares eta abar. Euskararen zonifikazioak jarraituko du foru komunitatean, baina orain udalek daukate zein eremutan egoteko eskumena.

Beraz, aldaketa horrekin eremu mistoa handitu egingen da eta eremu ez euskalduna txikitu, baina eremu euskaldunak ez luke inongo aldaketarik izanen. Orain arte, izan ere Atetzek egin duen eskaera apurtzailea da zentzu horretan, eta eremu euskalduna handitzea ekarriko luke.

Bada beste norabidean eskaera egin duenik ere. Zizurko zendeak eremu mistotik eremu ez euskaldunera igarotzeko eskaera egin dio parlamentuari, nahiz eta zendeako herri eta herritarren artean desadostasun handiak izan.

Atetzen ere ez da aho batez onartu eskaera, EH Bilduren botoek soilik atera dute aurrera eskaera, eta Hemengoak taldeak aurka bozkatu du udal bilkuran.

Atezko herritar eta zinegotziek esan diguten bezala, egoeraren normalizaziorantz pauso bat litzateke

eskaera hau, nahiz eta praktikan aldaketa handirik ez ekarri. Izan ere, Larraintzarren euskaraz ikasten zuten lehen ere bailarako gaztetxoek, eta udalaren administrazioa euskaraz egiteko pausoak ere emanak ziren, horren isla udal langile euskaldunaren azken kontratazioa. Beraz, pauso sinbolikoa litzateke gehienbat.

Inguruan ere pozez jaso dute albisteak. Hurbiltze bat ere bada inguruko bailaretara, Ultzama eta Imotz aldera bereziki, eremu euskalduneko parte direnak. Imozko Udalak deklarazio ofiziala egin zuen Atezko Udalarri zorionak emanez, eremu euskaldunera ongi etorria ematearekin batera.

Esan bezala, lehen udalerria da eremu euskaldunerako norabidea hartzen duena, baina bakarra ez izateko esperantza daukate ateztarrek, Iban Baztan zinegotziak esan bezala, badiarelako eskaera egiteko zalantzan daudenak, eta beraz, gehiago izan daitezke pauso hori ematen dutenak.

Inguruko bailaretan bezala, euskara egoera zailean dago Atetzen ere. Gazte gehien-gehienek euskaraz dakite, Larraintzarren ikasi dutelako, baina asko kostatzen da euskaraz bizitzea, eta Iban Baztanen arabera, administrazioak horretarako tresnak jartzen ez baditu zailagoa izanen da oraindik, eta beraz hori errazteko bidea litzateke pauso hau.

Eremu mistoko beste udalerriei gonbidapena egin die Esan Erran irratian Iban Baztanek, eremu euskaldunera pasa daitezen.



Irunerena mikro-ipuin **onenen** artean

Ilarregiko Irune Elizalde Abad gazteak Nafarroako eskolarteko mikro-ipuin lehiaketan parte hartu eta irabazi egin zuen. Lehenengo saria lortu zuen bigarren hezkuntzako atalean.



Sariak Larraintzarko Benta zentro zibikoan banatu zituzten, eta Nafarroako D ereduko hainbat ikastetxetako ikasleak izan ziren bertan, besteak beste Tuterako, Tafalla, Lizarra, Iruñerria, Sakana eta Leitzako ikasleak.

Pamielak eta Euskokultur fundazioak antolatutako lehiaketa zen, gazteen artean literatura eta zehazki mikro-ipuinak sustatzeko.

Larraintzarko ikastetxeko ikasleek dantza batekin ireki zuten ekitaldia, eta ondoren sariak banatzeari eta mikro-ipuinen irakurketari ekin zitzaion. Aurtengo gonbidatua Oier Sanjurjo Osasunako futbolaria izan zen, eta berak ere mikro-ipuin bat egin eta bertan irakurri egin zuen.

Irunek ere bere ipuina irakurri egin zuen, "Pentsamen-
duak" izenekoa. Gainera, ez da hau Iruneren lorpen bakarra, Coca-Colak antolatutako ipuin laburren beste lehiaketa batean lehenengo hiruen artean geratu da, eta ekainean jakinaraziko dute zein den irabazlea.

Larraintzarko ekitaldia bertsoekin amaitu zen, Larraintzarko ikastetxeko bi ikaslek abestutakoak

PENTSAMENDUAK

- Zeinen potxoloa den!-esan zuen Ainarak.
- Bai. Eta ez al zaizu iruditzen irribarre ederra duela? - gehitu zuen Eztik.
- Biek irribarre inozoak egin zizkioten Ioritzek.
- "Zertan ari dira bi hauek?" pentsatu zuen Ioritzek.
- Zer pentsatuko du? - galdetu zuen Maitanek, zazpi urteko neskatilak.
- Ez esan tontakeriarik, Maitanel Bi hilabeteko haurrek ez dute pentsatzen! - erantzun zion Eztik, bere amak.
- Zure amak arrazoa du, maitea - esan zion Ainarak irribarrez.
- Baina izeba...
- "Beraiek balekitez..." pentsatu zuen Ioritzek.

Ezkio

Haur eskoletako **matrikulazioa**



Heldu den ikasturterako matrikulazio kanpaina ekainaren 19tik 23ra izanen da. Imozko Ttikiena eta Ultzamako Xinbili-Xanbala haur eskolatan egin daiteke izen ematea. Xinbili-Xanbalarekin hitz egin genuen aurrematrikulazio kanpaina hastear zenean (apirila-maiatza), eta eskolak bizi zuen egoera larria aipatu ziguten; umeak matrikulatu ezean, modulo bat kendu eta zaintzaile bat kanporatu beharko lukete.

Gogoratu haur eskolak ezagutzeko aukera duzue, eta nahi izanez gero, matrikula egitekoa. Informazio gehiago Ultzamako zein Imozko udal-letxeetan izanen duzue, baita haur eskolatan bertan ere, jakina.



JASOTAKO GUTUNA

Topaketa **feministak**

Pasa den maiatzaren 6an, Bilgune Feministaren 15. urteurrena ospatu eta aurrera begirako urratsak partekatzeko asmoz, "Indar bat gara gu" lelopean. Emakume* Abertzaleon VII. Topaketa Feministak burutu genituen Berriozarren, 500 emakume* bildu ginen bertan



Egun bateko topaketa izan zen, non urte hauetako ibilbidea elkarrekin konpartitu eta ospatzeaz gain, aurrera begira, Euskal Herriaren burujabetza feminista helburu hartuta, erronka berrietan sakontzeko ere probestu genuen.

Emakume* Abertzaleon VII. Topaketa Feministetan, bizi dugun aldaketa feminista izan dadin, Trantsizio Feministan berretsiz botere(tze)a izan genuen jomuga nagusi. Gure ustez, gaurko baldintza politikoak abiapuntu harturik, garrantzia handiko eztabaida delako.

Hamabost urte hauetan luzea izan da egin dugun ibilbidea. Askotariko eztabaidak eta lan ildoak antolatu ditugu, betiere, gure herria feminismotik erakitzeke nahiarekin.

Azken urteetan, norabide honetan, Trantsizio Feministaren oinarriak sakontzen egin dugu lan. Alabaina, prozesu honetan, baditugu arretaz zaindu beharreko eztabaidak. Nola egin ibilbide hau gure

moldeak, gure prozedurak, gure indarrak baliatuz? Euskal Herrian burujabetza feministaren aldeko eztabaida soziala sustatu nahi badugu, feminismorearen intzidentzia politikoa lehen planora ekartzea eskatzen digu honek.

Horregatik, botere(tze) feministaren inguruko hausnarketan murgildu ginen maiatzaren 6an: feminismorearen diagnostiko konpartitu bat egiteko eta botere(tze) honen ezaugarriak elkarren artean definitzeko. Horretarako, honako galderei erantzuna ematen hasi ginen: nola ikusten dugu feminismoa Euskal Herrian? Nola aliantzak, militantzia, kolektibitatea, konpromisoa eta lidergo feministak? Nolakoa da feminismotik sortu nahi dugun boterea? Jardueraz beteriko eguna izan zen. Goizean eztabaida zabala eta dinamikoa burutu genuen aipatu galderen inguruan, eta arratsaldean, berriz, botere(tze) prozedurak askotariko praktikei lotuta jorratu genituen 10 tailer ezberdinetan.

Iluntzean, kalean zein dantzalekuan, ospakizunarekin jarraitu genuen, egunari amaiera emateko.

** Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans*...).*

A.E

Gaztanberaren Eguna **Arraitzen**



Ikusi Youtuben ETBk Ultzamako mamieri buruz egindako bideoa

Iritsi da, urtero bezala, gaztanberaren edo mamiaren eguna. Ultzamako ekitaldirik ospetsu eta jendetsuenetakoa izaten da urtero, eta aurten ere ohitura horri eusteko asmoa du Udalak.

Arraitzen izanen da aurtengoa, iazko Larrainzarkoari lekukoa hartuta. Urterokoari jarraituko diote, eta artisauak, dantzariak, musika... izanen dute egunean zehar.

Egitarauari helduta, inaugurazioarekin hasiko dira goizeko 10:30ean. Artzain txakurren erakustaldia izanen da, ardi jezte eta ile mozte erakustaldia, gaztanberaren egitearena eta gazta egitearena.

Eta nola ez, iazko arrakasta ikusita, aurten ere "Goxua Master chef gaztea" ekitaldia egingen dute, gaztetxoek sukaldaritza lehiaketatxoa. Ongi pasa eta on egin!



Basaburuko btt martxa **arrakastatsua**



Beste urte batez egin dute Basaburuan mendi bizikleta ibilaldia. Berrikuntzak zekartzan aurtengo ekitaldiak, izan ere ibilbidea aldatzeaz gain, ibilbide laburragoa egiteko aukera ere bazegoen. Dena den, txirrindulari gehienek luzearen alde egin dute. 95 txirrindularik egin dute ibilbide luzea, eta 23 laburra.

Azken honetan azkarrena Ander Biurrarena udabearra izan da, eta emakumeetan lehena Sara Sanzberro Sunbilarra; eskualdeko lehena Etulaingo Ana Ruiz Egozkue.

Luzean, aldiz, aldaketa izan da aurreko urteekin konparatuta. Asier Juanbeltz beruetearra ez da izan azkarrena, iaz lehena izan bazen ere. Zangozarra izan da aurtengo azkarrena, Eneko Santesteban. Ainara Mutuberria Eltzaburuarra izan da lehen emakumea lasterketa luze honetan. Lasterketa luzeko zein laburreko sailkapen osoak gure webgunean dituzue: www.ametza.eus

Gaztanberaren **Eguna** Arraitzen



Iritsi da, urtero bezala, gaztanberaren edo mamiaren eguna. Ultzamako ekitaldirik ospetsu eta jendetsuenetakoa izaten da urtero, eta aurten ere ohitura horri eusteko asmoa du Udalak.

Arraitzen izanen da aurtengoa, iazko Larraintzarkoari lekukoa hartuta. Urterokoari jarraituko diote, eta artisauak, dantzariak, musika... izanen dute egunean zehar. Egitarauari helduta, inaugurazioarekin hasiko dira goizeko 10:30ean. Artzain txakurren erakustaldia izanen da, ardi jezte eta ile mozte erakustaldia, gaztanberaren egitearena eta gazta egitearena.

Eta nola ez, iazko arrakasta ikusita, aurten ere "Goxua Master chef gaztea" ekitaldia egingen dute, gaztetxoek sukaldaritza lehiaketatxoa. Ongi pasa eta on egin!



Barraskiloa mugitzen hasi da



Aspalditik ari gara “Barraskilo proiektuaren” inguruan solasean bai Pulunpen bai Esan Erran irratian. Bada, azkenik, hasi dira barraskiloa eraikitzen, barraskilo forma izanen duen eta “slow food” eskola izanen duen eraikina.

Aurreko Pulunpen esan genuen bezala, bioeraikuntza ikastaro baten bidez ari dira eraikitzen, eta zimenduekin ari dira momentu honetan. Eraikin guztia egingo dute hainbat irakasle adituren irizpideak jarraituz.

22 ikasle ari dira horretan, maiatzaren 15ean hasi eta irailera arte ikasten eta ikasitakoa praktikan jartzen. Ultzama aldeko ikasle bakarrak eman zuen izena, eta inguruko herrietatik beste baten bat ere badago, baina gehienak Iruñekoak dira.

Behin zimenduak amaituta, hurrengo bloke pasako dira, horrela teiltua egin eta eraikina bukatu arte. Eta eraikina amaitzean, “slow food” eskolak hartuko dio lekukoa, eta bertako sukaldaritzarekin hasiko dira.

Euskara klaseak doan Larraintzarren



Larraun eta Ultzama aldeko AEK-k doako klaseak antolatu ditu ekainaren 16an Larraintzarren. Eskualdeko jendeari ateak ireki nahi dizkio honela, klaseak zein metodologia nolakoak diren erakutsi nahi ditu.

Horretarako, goiz eta arratsaldean izanen dira klaseak, Larraintzarko Benta zentro zibikoan. Maila guztiendako eskaintza antolatu dute, goizeko

10:30ean hasita, hasiera maila, tartekoa zein aurre-ratuarendako. Arratsaldean ere gauza bera egingen dute, 17:00etan hasita, eta haur-zaintza zerbitzuarekin.

Aurrematrikula kanpaina

Datorren ikasturterako aurre-matrikula egiteko aukera irekita dago jada. Ekainaren 19an itxiko da izen ematea egiteko aukera, eta nahiz eta matrikula kanpaina ere izena eman daitekeen, orain eginez

gero %5eko deskontua eta ordainketa modu erosoa goa eskaini ditu AEK-k.

Nahiz eta euskaltegi fisikorik ez dagoen Ultzama aldean, hainbat herritan daude euskara klaseak orain, eta datorren ikasturtean ere mantentzeko asmoa dute. Aurten Larraintzarren, Olaguen, Ziaurritzen eta Erizen daude taldeak.



Ateztarrendako zerbitzu berriak eraikitzen hasiak



Aroztegin kokatuko den Izarpe kanpina egiten hasiko dira ekainean. Urte erdi pasatxo eraikitzen aritu ostean 2018ko otsailean irekitzeko asmoa dute. Bisitariendako aukera izan arren, ateztarrendako zerbitzuen eskaintza azpimarratu nahi dute.

Hori da beste kanpinekin duen desberdintasuna. Besteak beste, hauek dira bizilagunei eskainiko dizkion zerbitzuak:

Bailararako denda bat izanen du, momentu honetan ez baitago bat ere. Marka zuria izanen dute produktuetako batzuek, eta edozein auzotako supermerkatuetan aurkitzen ahal ditugun produktuak izanen ditugu bertan, prezio egokietan betiere. Ostatu-jatetxe bat ere egonen da, eta bai honetan zein dendan “kmo” politika jarraituko dute, hau da, inguruko produktuekin egingen dute lan.

Bestalde, kirol espazioak ere izanen ditu kanpinak: igerilekua, haur-parkea, animazioa... Beraz, kirol eta kultur eskaintza ere izanen du lekuak.

Eta bisitariari begira xehetasun gehiago ere ezagutu ditugu. 16 bungalow egonen dira (kanpaina bat jarri dute abian bungalowak eskuratzeko), betiko partzelak kanpin denda, autokarabana zein furgonetendako, eta “Glampinga” delakoaren berritasuna, naturan lo egiteko pentsatutako lekuak, baina erosotasunei uko egin gabe.

Web orrialde bat ere martxan jarri dute, kampingizarpe.com. Hortxe izanen duzue informazio gehiago!

Aipatu genuen aurreko batean zer eskainiko duen Atezko Izarpe kanpinak, eta denborak aurrera eginda, tramitazio eta paper guztiak amaituta, eraikuntza fasearekin hasi dira. 5 sozio dira kanpinaren kudeaketan, eta haiekin hitz egin dugu proiektu honetaz gehiago jakiteko. Aroztegiko Fernando Arriazu, Marisol Calzado, Marta Gaston eta Alfonso Serrano dira, Ainhoa Gastonekin batera, aroztegiarra ez, baina harreman estua duena herriarekin.

Askotan, kanpinaz aritzen garenean turismoan pentsatzen dugu, baina boskote honek ateztarrendako sortzen dituen zerbitzuei eman nahi dio garrantzia.

Itsasonea, artisauen etxea



Itsasonea etxean izanen dute egoitza eskualdeko artisauak, etxe zaharberritu honen ganbara ederrean. Al-daketa nabarmena izan du etxeak, beheko solairuan herriko elkarteak egin baitute, tarteko pisuan hiru etxebizitza eta ganbaran, esan bezala, artisauak lan egiteko zenbait espazio.

5 artisau arituko dira lanean, kontzejuari eta Udalari eskaera egin ostean. Norberaren “estudioa”, argindarra eta urarekin izanen dute. Eta beste espazio ireki bat egonen da, bertan ekitaldiak edo erakusketak egiteko.

Muskitz ez dago geldirik, albiste ugari ematen baitizkigu azkenaldi honetan. Etxebizitza soziaia, herri kirol xelebreak, BerMuskitz... eta orain, artisauen guneak!

Maiatzaren 28an egin zen inaugurazioa, artisauen lanaren erakusketekin zein eskualdeko artisten materialarekin. Hemendik aurrera gelatxo horiek artez eta ilusioz beteak egonen dira.



“Gaur egun, zerbait dakienak **hitz egin** behar du”

Gure memoria historikoaren testuinguruan bada fenomeno zehatz bat: garai horietan gertatu ziren bidegabekerien lekukoei oso urte gutxi geratzen zaizkie. Erreportaje honen helburua da, Martin Laguardiaren kasua eredu bezala hartuta, barnean geratzen diren azken sekretu horiek loratzen laguntzea.



Martin eta Javier, Urritzelkin

Urritzelki herria Lizaingo bailaran dago kokatua, leize ikusgarri baten azpian, baso berdeen artean. Herri txiki honetan jaso gaituzte Martinek eta bere seme Javierrek. Etxeko sukaldean eseri eta kontu kontari aritu gara denbora luzez.

Nafarroako hedabideetara salto egin zuen Burutaingo 6 fusilatuen hilotzen aurkikuntzak, batez ere 87 urteko agure batek txikitatik barruan eraman zuen egia kontatzea erabaki zuelako. Zaharra da Martin eta elkarrizketa pixka bat nahasia, baina bere semearen laguntzari esker lotura puntuak aurkitu ditugu eta hemen azpimarratzen dizkizugu tarterik interesgarrienak.

1938ko maiatzaren bukaera

Mendira behien bila joan ginen egunero bezala eta bertan aurkitu genuen gizon talde bat, erdi biluzik, behi bat hil nahian. Guardiak deitu eta gizonak antzeman ondoren eskolara eraman zituzten gatibu.

Gogoratzen dut emakumeek janaria eraman zietela, igande bat zela, jai-eguna. Hurrengo egunean, mezaren ondoren prozesioan joan ginen erreka ertzera eta bertan fusilatu zituzten harritzar baten alboan. Bitxia bada ere, beti gogoratu izan dut harri handi hori. Ezin ahaztu ere mutua zen gure osaba batek lurperatu behar izan zituela gizagaixo horiek.

Egunerokotasun isila

Herrian ez zuen inork ikusitakoari buruz hitz egin. Egunero pasatzen nintzen hortik eta gogoratzen nintzen. Iruñeko hiltzaira behiak eramaten genituen astean hiruzpalau aldiz eta errepide albotik

pasatzen ginen. Garai horietan bideetatik oinez joaten nintzela beti begiratzen nuen areketara... Urteak pasa ahala ez pentsa kontua ahaztu nuenik... Beldurra oso presente zegoen, honi buruz hitz egiten bazenuen igual tirokatzen ahal zizuten.



Aranzadi elkartekoak, Burutainen lanean.

Prozesua

Bizilagun bat herrira bizitzera etorri zen duela gutxi, eta hizketan hasi ginen eta komentatu zidan bazuela fusilatu zuten osaba bat. Eta ni erantzun nion banekiela non zeudela fusilatu batzuk. Horrela atera zitzaidan burutik asuntua.

JAVIER: Urtebete generaman “Amapola del camino” elkartekoekin hizketan eta Burutainen bizpahiru aldiz egon ginen. Unibertsitateko batzuekin joan ginen eta bere garaian lekuan bertan elkarrizketatu zuten haiek zituzten datuekin alderatzeko. Ikusi zuten Martinen oroitzapenak oso zehatzak zirela eta lekua, hamarkadak pasa badi-ra ere, berdin mantentzen dela. Lehenengo elkarrizketa horren ondoren datu gehiago jaso omen dituzte lanak ziurtasunez egiteko amoz. Finantzazioa ere kontuan hartu beharrekoa da.





Antonio Ziaurritz Buruko bertsolaria, Aritzutik Auzara (I)

Gaurkoan Antonio Ziaurritz Burukoren bertso batzuk ekarri ditugu hona. Principe de Viana zeritzan aldizkarian atera ziren orain 50 urte pastuxeak, 1966ko azaroko zenbakian hain zuzen.



Damaso Intza, misiolari famatuak Txiletik igorri zituen. Intza gerra aurrean alderdi honetako herrietan ibiltzen zen misioak ematen. Gerra etorri eta Lekarozko komentutik kanpora igorri zuten, atzerriara. Euskaltzale ziren guztiak bota zituzten Lekarozkotik eta beste komentu askotatik, misioetara igorritz.

Euskarak atzerakada nabarmena izan zuen orduan. Hala ere, zorionez, tarte idor baten ondoren, ernatzen hasi ziren euskarazko aldizkariak eta irratiak. Nafarroan, Diputazioak sortu zuen Principe de Viana euskarazko hilabetekaria 1966. urtean.

Eta Damasok hasieratik parte hartu zuen Principe de Vianan, hilabetero, bere idatzi eta bertsoekin. Adibidez, 1966ko azaroan, Txiletik "Auzako bertsolaria" zen Antonio Ziaurritz Burukoren aspaldiko bertsoak igorritz. Gaur guk aterako ditugu PULUNPEN bertso horiek:

-I

Aritzutik Suberbera
egin nintzen torri,
lana franko eman diot
nere buruari.
Azienda polit bat
egin nuen karri;
berriz ikusiko oteut
eun buru ardi?

-II

Beti esaten nuen
aitz bildur nintzela;
motiboa torri da,
nik erran bezala.
Enfermedade ortatik
Jainkoak gorde gaitzala
alako ardi izateak
batere ez bezala.

-III

Lenbixikoan (dira)
banaka, biñeka,
beti ikaraturik
oiei begiraka.
Den gutxina asiz geroz
illetik tiraka
antxe daude serio
lurrera botaka.

-IV

Bat txutitu orduko
bestea erori;
¡A zer konsueloa,
Biotz altxagarri!
Amaika tristuria
eman dira neri.
Gustoa artu duana
Konsolatu bedi.

-V

Egun batez joan nintzen
aize otzarekin,
kazkarra barra-barra
t'orma ai zuen biñipin,
arratsian etxera
nere ardiekin;
dozenerdi bat buru
bere koloekin.

-VI

Etxera torri eta
triste biotzian.
Zer kusi bear oteut
aurtengo urtian!
Gaua pasatu eta
biramón goizian
zaldalia ematia
naiz gogo txarrian.



-VII
Kontu oiek izotz-illan
ziraden bai, gero
asizgeroz jakitia
obia da klaro;
oraindikan mayatza
lekutan baitago,
nere ardi multzoa
orduko akabo.

-VIII
Izotz-illa joan eta
otsailla tokatzen,
illabete prestua
nekez ateratzen;
ez nazu broman ari
bertsuok paratzen,
oraintxe ari dire
koloak bakantzen.

-IX
Oiek izan banitu
buru ordañian,
ja zer eskarmentua
gero azkenian
entregako denbora
etortzen denian
gizena idukoitek
oiek nienian (1)

-X
Larruketaria ere
asi da aspertzen,
oiekin ez duela
deusik ateratzen;
pixkat tiratuz geroz
nondiñandik austen.
Orain asiak gera
bere gixa uzten.

-XI
Kaikua artu eta
joan naiz artegira.
Orain ere koloak
berriak ba-dira;
ezkera indartuko, len
me-xamar ba-gera;
noizpaiz ere moduok
aldatuko al dira.

-XII
Orra amabi bertsu,
nai tuenak ikasi
motiborikan gabe
eznindoan asi,

gustu duenari
nai tut adirazi;
aziendarik gabe
emen ezin bizi.

-XIII
Amairugarrena
bota dut neria
Argi esan bear dut
nor duten jabia.
Antonio auzarra da,
jau miserabilia!
oiek baño obe dik
batere gabia.



Alkomorroko borda ederra, XIX mendekoa dirudi.




Lurreko sua bere gertokiarekin. Franko ttikia.



Sukaldeko leihoa. Bertan du ornilloa deitzen zen sutokitxo, desegina. Azpikoaldean zuloa sutautsa sartu eta ateratzeko.

Hiztegia



ARDI KOLOA: Koloa edo kolatxa duen ardia.

KOLOA EDO KOLATXA: Ardiak toki uspeletan ibiltzean gaizkitzen dira. Bai, toki uspeletan, ihintza izaten denean, belarra ez da xukatzen eguerdi alderaino eta zomorro batzuk belarrean gora, beroki bila ateratzen omen dira puntetaraino. Orduan ardia belar punta horiek janez, zomorroa ere jaten omen du eta honek gibeleraino iritsi ondoren,

ardiari gibela jan edo hondatzen dio, eta hil egiten da ardia (Horrela edo horrelatsu entzun izandu diegu artzainei)

ZALDALEA (ZALDALIA) : Aziendendako pentsua (Etimologikoki Zaldi alea izanzen litzateke)

IZOTZILLA: Ilbeltza edo urtarrila.

LARRUKETARIA: Larro eroslea (ardi, txekor, behi... larro erostuna)

ARTEGIA: Ardiak edukitzeko borda, etxea, estalpea...



Bertso hauez zenbait ohar

Bertso hauek, Intzak dioenez, Olaguen zituen bilduak 1926. ean edo. Hori jarri zuen atera zituenean P de V.n, eta berehala Auzako apezak, Don Emilio Goldaratzek zuzendu zion idatziz, Principe de Vianan berean, 1936ko ekainaren 29an bildu zituela. Antoniok bioi kantatu, eta Intzak idatzi.

Orduan idatzi eta 1966. urtean atera edo argitaratu. Eskuz idaztean zerbait oker hartzea ez da harritzekoa eta, gero urteetara irakurtzean, denetaz atzenda, zerbait oker irakurtzea ere ez. Oker ttiki batzuk behintzat sumatzen dira.

Bertsotan ageri diren oker batzuk ere zuzendu zituen P.V. aldizkariak

ALDIZKARIAK BERAK ZUZENDU ZITUENAK.

Suberberea, Luberbera ordeztu
Auzarrak, Ozarrak hitzaren ordeztu.

ETA NIK ZUZENDU DITUDANAK

Lenbixikoan dira, lenbixikan hitzaren ordeztu.

Ez dut zuzendu nahi izan gehiago. Irakurle bakoitzaren esku utziko ditugu okertxoak.

Bertso hauek nola diren sortuak Don Emilio Goldaratzek kontatzen digu Principe de Vianan berean, 1966an:

“Orain ogeitamar urte baditu Aita Damasok eta nik, Auza’n geundelarik, Auza’ko Antonio Ziaurritz “Saun” izengoitiz zenari, bertso auek entzun genizkiola”

“Jakiteko gauza da Antonio Ziaurritz zenak nola bertso auek konpondu zituen. Negu gorriaren egun batez Juarbe-Illarregi eta Oskotz’ko errien mugaldetan bere ardiekin zegoelarik, euri kazkabarra eta ikaragarriko otz egiten zuela, ardi geienak auldu, gaixotu eta il zitzaizkion. Gure bertsolaria elorri zar baten azpian, estalpe gisan, zelarik, au “denak” begira-ta bertsotan asi zen naigabeak atzenda eta ahaztutzeko. Orduan mundura etorri ziren “Artzai Gizagaxoa” bertsoak. Irurogei ta amabortz urte zittuen orduan. Gero etxeratu zenian berriro kantatu zittuen bere etxeokan aurrean”.

Zein urtetan izan zen artaldea galtzea? Goldaratzek dioen bezala, 75 urte bazituen Antoniok, 1933. urtean izan zen.

(1) IX. bertsoa gelditzen da oker samar. Intzak bera dio azken hitz hori oker dagoela.

Hurrengo batean bertsolari honi buruz gehiago idatziko dugu.



EDURNE KOCH, BEÑATEN AMA

“Oso gogorra da ume bati **identitatea** ukatzea”

Aizarozko Edurne eta Karlosek ezagutzen ez zuten egoera bati egin behar izan zioten aurre guraso gisa. Zakilarekin jaio zen bere haurrak, Beñatek, neska zela esaten zuen. Orduan hasten da hausnarketa, zakilarekin jaio baina neska dela esaten duen haurra mutila da? Horren inguruan aritu gara Edurnerekin.



Maiatzean hitzaldi bat egin zuten Larrain-tzarko eskolan DBH-ko ikasleekin eta zentro zibikoan bi sexologorekin batekin batera: Aitzole Araneta ikasleekin eta Iñaki Goñi publiko orokorrekin. “Oso kontent” atera zirela diote, “bakoitzak bere iritzia nola ematen zuen entzutea, gaia mahai gainean dago, argitara atera da, eta hori oso-oso handia da”.

Transexualitatea luzaroan ezkutuan egon da, orain ari da zentzu batean normalizatzen, Chrysallis elkarteari esker. Zuek nola bizi izan duzue hasieratik?

Neurri handi batean, bai, Chrysallisen bitartez asko gizarteratu da errealitate hau, umeak lehen aldiz gizarteratu ditugu. Diren horiek izaten permititzen zaien lehen generazioa da eta hori oso handia da gizarte guztiarendako, aberastu egiten gaituelako eta aniztasunaren diskurtsoan jartzen gaituelako.

Guk transexualitatea zer zen ez genuen ezagutzen, ez genuen inguruan inolako erreferentziarik eta hasieran beldurtu egin ginen, garuneko kutxatila ilunean baikenituen erreferentzia urriak. Baina gure haurrak behin eta berriz aldarrikatzen zuen bere identitatea eta egoerari aurre egin behar izan genion.

Haurrak sentitzen zuen sexuarekin tratatzen hasi ginelarik, sekulako lorakuntza prozesua hasi zuen. Izaera aldatu egin zitzaion, eta gaur egun oso pozik bizi da. Beste ume bat da.

Haurren transexualitatea bereziki tabua izan da, zer pertzepzio izan duzue inguruaren onarpenarekin?

Bai, bereziki haurtzaroan izan da ezeztatua, horregatik gaur egungo transexualitate egoeran dauden

helduak, haurtzaroa galdu zutela diote; haien arteko suizidio saiakera tasa oso altua da, beldurtzekoa. Oso gogorra da ume bati identitatea ukatzea, bizitza guztirako markatua gera daiteke, eta hori izan da orain arte egin dena, beldurragatik, ez jakintasunagatik, gainontzekoek zer esango zuten pentsatzeagatik, eta abar.

Guk zorte handia izan dugu. Lehenik, gure haurrak txiki-txikitatik indarrez adierazi digulako bere identitatea zein den. Bigarrenik, guk entzuteko kapazitatea izan dugulako eta gure inguruak hori ikusten eta errespetatzen lagundu digulako eta, hirugarrenik, garai honetan eta kontinente honetan bizi garelako.

Familian gure “aurkikuntzaren” berri eman genuenean, oso harrera ona jaso genuen, haurraren gertukoak izanik, erabat ulertu zituztelako ordura arteko egoera ulertezin guztiak. Eskolan eta bailaran ere haurra erabat onartua izan da, oso-oso pozik gaude. Eta azalpenik behar izan ez dutenak umeak izan dira, hasiera-hasieratik ikusten baitzuten lagunaren identitatea. Beste behin, umeak irakasle.

Prest al dago gure gizartea transexualitatea era normal batean “integratzeko”?

Azken 5 urteetan sekulako iraultza egin dugu begirada honen irekieran, zer esanik ez azken urtean. Bai, gizartea hein zabal batean prest dago, nahiz eta errealitate honen berri ematen jarraitzea ezinbestekoa zaigun. Chrysalliseko familiek haur hauen ondoan bidea egitea hautatu dugu, eta hori sekulako hauspoa da kolektibo honi airea emateko, baina komunitate osoa behar dugu bidelagun, hezkuntza eta osasun komunitateak oso garrantzitsuak baitira.

Zein zailtasun eta zer laguntza izan duzue?

Guk ez dugu zailtasunik izan, gure haurra txikitatik onartua izan delako eta ez duelako besterik behar zoriotsu hazteko. Baina baditugu hain txikiak ez diren adingabeak elkartean eta horietatik batzuk oso egoera mingarrietan iristen dira elkartera. Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ume hauei laguntza eta babesa ematea ezinbestekoa zela ikusi zuen, eta txalotzekoa da erakutsi duten ume hauekiko jarrera eta konpromisoa. Osasungintzan, aldiz, egiteke dago aldaketa. Oraindik ume hauen errealitatea patologizatu egiten da medikuntzatik, eta buruko gaixotasun gisa katalogatua dago. 2017.urtean gaude eta diskurtso hau onartezina da, sekulako mina eragiten du.

JOSU OLLO BILDARRATZ, GOLDARAZKO ARTZAINA

"Gazteon arteko giroa sortu behar dugu"

Goldarazko Joanean sortua, herrian bertan aurkitu du lana. 8 bat gazte dira herrian, gehienek kanpoan egiten dute lan, eta batzuk ere herritik joan dira. Josuk argi zuen Goldaratzen geratu nahi zuela, eta asteburuetan gurasoen Etxeberri jatetxean laguntzeaz gain, bere arditegia sortu eta Erronkari gaztari latxa ardiaren esnea saltzen dio.

Argi zenuen hemen geratu nahi zenuela?

Bai, txikitatik argi nuen ganadua izan nahi nuela. Eskolan planoak egiten aritzen nintzen granja egiteko, 14 urterekin. Irakasleek galdetzen zidaten ea zertan ari nintzen plano horiek egiten.

Eta abeltzaintzarekin lotutako zerbait ikasi duzu?

Bai, agronomo ikasi nuen, eta gero ikastaro zenbait egin ditut INTIA-n. Eta bidaiatu ere egin dut, kanpoko esplotazio batzuk ikustera. Gran Canarian egon naiz esaterako. World Chees Award ekitaldia urte bakoitzean leku batean izaten da, eta hara ere joaten gara. Datorren urtean Donostian izanen da; munduko gaztagile ugari elkartzeko dira.

Gazta ez duzu egiten ezta?

Ez, esnea saldu egiten dut, baina pentsatua daukat gazta egitea. Momentuz bakarrik nago eta ezin dut pauso hori eman, baina beste norbaitekin aritzen hasten banaiz gazta egiten dut, bai.

Zenbat ardi dituzu?

400 inguru, latxa arrazakoak.

Noiz hasi zinen?

19 urte nituen proiektuarekin hasi nintzenean. Orain 28 ditut, eta ukuilua martxan jarri arte bi urte pasa ziren; beraz, 2010ean hasi nintzen lanean. Herritik 200 metrora daukat ukuilua, eta ardiak etxeko betiko lurretan ditut batzuetan, komunalak ere erabiltzen ditut, eta baita alokatutako lurak ere. Ardi latxak gehien-gehiena mendian jaten du.

Goldaratzen jendeak ganadua mantendu du, ezta?

Bai, guk badugu, Joseanek (Iturralde), goiko etxe-

koek... eta gazteak kanpora lanera joan diren arren, gurasoak ganadutik bizi dira. Goldaratzen mantendu da, Imozko herri gehienetan nik uste galdu dela, baina hemen geratu gara batzuk horrekin.

Esnearen sektorea larri dago, zu nola zaude?

Esnearen sektorea oso ezeگونkorra da, irabazien margena ikaragarri jaitsi edo igo daiteke urte bate-tik bestera. Ardi latxa daukadanez ni ez nago horren gaizki, ez baitago jende asko latxarekin lanean ari dena.

Ez zarete gazte asko ardiekin ari zaretenak.

Ardi latxekin ari garenon artean, batezbesteko adina 56 urtekoa da. Beraz, hor arazo bat dago. Idiazabal eta Erronkari gazta fabrikak esnerik gabe geratzen ari dira, zaharrak gero eta gutxiago direlako eta gazte gutxi sartu. Gazteok elkartzen hasi gara, eta giroa aldatu da, sartzen diren gazteei laguntzeko eta gazteon artean ere harremana sortzeko. Hau da ikusi dugun modu bakarra sektoreak jarraitzeko.

Nik ikusten nuen jubilatatu berri ziren artzainen artean harremana zutela, eta hona, jatetxera etortzen ziren. Eta gazteen artean giro bera sortu behar zela pentsatu nuen. Altsasun jardunaldi batzuk egin ziren Euskal Herri mailakoak belaunaldi aldaketaren inguruan. Nik proposatu nuen giro hori sortu behar zela gazteen artean, elkartu, elkar lagundu, nekazaritza eskoletako ikasleekin hitz egin norbaitek interesa izatekotan...

Zenbat gazte zarete?

Ardi arraza honekin 25 izanen gara osotara, baina 30 urtetik behera 7 bat gara bakarrik. Imotzen, nik dakidala, honetatik bizi denik ez da beste inor.


Ostalaritzan ere aritzen zara

Bai, gurasoei laguntzen diet asteburuetan, egin beharreko gauza da hori ere. Nik, dena den, animaliekin lan egitea nahiago dut. Ostalaritzan ordu finko bat daukazu eta jendeak ez du itxoiten bazkaltzeko. Ardiekin berandu joan zaitezke eta ardiek ez dizute ezer esango. Kontran, egunero goiz eta arratsaldeko lana da, egunero jan behar baitute. Bestalde, ostalaritzan, atea itxi eta libre zaude. Bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu, baina nik animaliekin lan egitea nahiago



Euskaraz, zuzen eta dotore hitz egin

Laster eginen ditu bi urte. Uztaila zen, egun eguzkitsu eta beroa. Herriko karriketan nenbilen eta hara: bi ezezagun aurrez aurre. Nik, ohitura dudan bezala, lehen hitza euskaraz; euskaraz agurtu nituen. Eta hala hasi ginen hizketan.



Josetxo Lizartza, leitzarra. Trebe, erraz... euskara bikain eta dotorean aritzen zaigu astero telebistatik. Maisua.

Haletako bat euskalduna zen, Bilbokoa. Familia erdaldun batekoa baina Ikastolan euskaraz ikasitakoa. Eta zein ederki zekien euskaraz! Gironako Unibertsitateko katedraduna, ongi hitz egina, jakituna... hitz batez, gizon jantzia. Eta gainera txaloo...

Eta euskararen etorkizunari begira, berebiziko inportantzia ematen zion ongi eta zuzen mintzatzeari. Euskara salbatzeko nahi eta nahiezkotzat zuen euskara ona ibiltzea. Mintzatzerakoan eta idazterakoan, hizkuntza jasoa erabiltzea.

Hona hemen, orain berri, gai honetaz zerbait idatzia igortzeko esan eta, igorri didana: "Nafarroan egindako azken inkesta soziolinguistikoak berretsi du euskararen goranzko joera, bai ezagutzari eta bai erabilerari dagokionez. Azkeneko hau, ongi dakigun bezala, askoz mantsoago hazten da aurrekoa baino. Hazkunde apalago hau azaltzeko askotariko arrazoiak aurki genitzake.

Hauetatik bat jorratu nahi nuke datozen lerroetan: hizkuntzaren kalitate edo prestigioa. Ezin uka euskaldunok zabar eta axolagabe samarrak garela maiztxo hizkuntza kontuetan, eta ez diogula behar bezalako garrantzirik ematen mintzairaren "politesse"ari, alegia, darabilgun mintzatze moduaren apaintasun edo dotoreziari. Eta horretan oker, oso oker gabiltza. Inork ez baitu tresna trakets bat aukeratzen, itxurosoren bat eskura izanez gero.

Hortik dator, nire ustez, askok erdararen alde egiten duen hautua. Susmoa daukat batzuetan premiazkoa iruditzen zaigula erdarakadak esatea, liburuetan, eskolan edo hedabideetan ikasi ditugun hitz "jasoak" baztertuz, horrela modu "herrikoia" edo "jatorragoa" dihardugun uste-tan. Eta horrek kalte egiten digu. Konbentzitu behar dugu guztiz bateragarriak direla mintzatze estilo normal eta naturala korrekzio edo zuzentasunarekin. Ez diot, beraz, Versailles erako hizkera handiuste eta katramilatua ezarri behar dugula eredu. Nire proposamena, oso bestela baizik, nahiko sinple eta argia da: Saia gaitezen euskara normal eta natural -baina aldi berean zuzen- bat erabiltzen"

Nik nire aldetik, ez dut deus gehiago esan beharrik. Hor dugu euskara aurrera ateratzeko baldintzetako bat, eta nahi eta nahiezkoa dena gainera.

Gaurkoan ardo frexkoa Girona aldetik ekarri dugu. Ez da harritzekoa, hizkuntza kontuetan zenbat dugun ikastekoa Katalunian!

Aurtengo prebentzio kanpaina: Errespetuz blai

Jadanik uda eta herrietako jaiak hurbil ditugu eta Ultzama aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik martxan jarri dute aurtengo prebentzio kanpaina, Errespetuz Blai izenarekin. Gazteei zuzendutako ekimena da hau.

Kanpainaren helburu orokorra, izenburuan aipatzen duen bezala, “jai guneak errespetuz blai guneak izatea nahi dugu” da.

Kanpainak hiru lerro nagusi ditu:

-Gehiegizko kontsumoak saihestea, kontsumo arduratsua bultzatuz

-Emakumeek eta gizonek baldintza berdinetan ongi pasatzea, eta eraso sexisten prebentzioan arreta jartzea. Askotan, arlo hauetan, emakumeen duintasuna eta askatasunarekiko begirunea ez dira betetzen.

-Teknologia berrien zentzuzko erabilera areagotzea. Uneko egoeraz disfrutatzea eta momentua bizitzera animatu nahi dute jendea, mugikorrak eta teknologia berriak alde batera utzi, eta jai giroan murgildu daitezzen.

Antolatzaileak: “Aurtengo kanpainari beste kutsu bat eman nahi genion, interaktiboa izatea nahi genuen, hau da, jendearen parte hartzea lortzea, gazteak kanpainaren zati bat izatea eta kanpainan inplikatzeko. Horregatik, jolas moduko hau asmatu dugu”.

10 pegatina mota izanen dira eskura aipatutako 3 ildo horien inguruan. Pertsona bakoitzak erabakiko du zein jarri nahi duen. Zein pegatinak definitzen du hobe nire egoera edo nire nahiak? Aukeratu eta ikusgai jarri. Adibidez, “gaur dantzatu nahi dut” edo “gaur jolastu nahi dut” edota “mozkordoiak” ez badituzu gustuko hau aukeratuko duzu: “Mozkordoirik ez!”.

Aldiz, ligatzeko gogoarekin egonez gero hau hautatuko duzu: “Ligatzeko prest!” Lagunak beti whatsapp-ak noiz iritsiko zain egoteaz nazkatuta bazaude, hau eraman dezakezu: “Aparkatu mugikorra... eta begietara begiratu”.

Kanpaina errugbiaren gaupasan abian jarri zen, ikusiko dugu ea uda honetan arrakasta lortzen duen!



289 eta 149

Hau da Basaburua eta Imotzen ekainaren 18an egingen dugun herri galdeketari begira lortu dugun sinadura kopurua. Basaburuan erroldatuen

%41,19 eta Imotzen berriz, %40,49. 438 izen, 438 pertsona oso ezberdin, helduak, gazteak, adinekoak, bi bailaretako herri guztietakoak... eta denak herri galdeketa parte hartzeko ilusio eta gogoz.

Erraz gaintitu dugu galdeketa legala eta posible izateko behar genuen 16 urtetik gorako %10eko langa. Nork esan zuen herri honetan ez ginela kapazak denon artean zerbait adostu eta aurrera eramateko?

Badakigu batzuek sinatzeko gogoz geratu zarete, baina lasai, berdin-berdin parte hartu ahalko duzue eta. Aupa zuek! Mila esker zuen babesa emateagatik!

2016an hasi zen herri galdeketa olatua Euskal Herrian eta aurtengo ekainean Nafarroaren txanda izanen da. Sakana osoa, Irurtzun, Lekunberri, Larraun, Leiza, Areso, Goizueta, Arano eta beste hainbatekin batera, Basaburua eta Imoztarrok erabakitzeko aukera izanen dugu. Erabakitzeko eskubidea ezin zaiolako inori ukatu.

Guztion artean adostutako 2 galderei erantzun beharko diegu eta erantzunak sinpleak, bai ala ez:

1) Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu librean erabakitzea? BAI/ EZ

2) Baiezkoa bada, nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko basaburuarra/imoztarra izan? BAI/EZ

Jauntsarasko eskolako aparkalekuan egonen da Basaburuko hautestontzia egun osoan zehar egitarau ederrarekin eta Imotzekoa Etxalekuko plazan.

Parte hartzeko baldintzak hiru dira:

-16 urte beteak izatea

-Bi bailara hauetako batean erroldatua egotea
-NAN-ean Basaburuko edo Imotzeko helbidea agertzea. Hala ez izatekotan, errolda-agiriarekin etorri beharko da bozka ematera derrigorrez

GUZTIOK ZAUDETE GONBIDATUAK

Denen ahotsak entzun nahi ditugu, guztion artean egingen baitugu bidea. Behingoz zure iritzia emateko aukera izan eta etxean geratuko zara?

Guk egiten ez badugu, beste inork egingen ez duelako ...

GURE ESKU DAGO!

EKAINAREN 18AN ERABAKIKO DUGU!



OHAR GARRANTZITSUA:

ERROLDATUA EGON ARREN NAN-EAN EZ BADA BASABURUA EDO IMOTZEKO ZUEN HELBIDEA AGERTZEN, ERROLDA-AGIRIAREKIN ETORTZEA BEHARREZKOIA IZANEN DA BOZKA EMAN AHAL IZATEKO. BERAZ, BADA KIZUE, ZUEN KASUA BADA, ESKATU AURREZ ERROLDA-AGIRIA UDALETXEAN.

Ikusi Youtuben bideoa: "Gure Esku Dago Basaburua-Imotz sakatuz"

Kirolari eta emakume izatea ez da gizon izatea bezala

Gai honetaz hitz egiteko, eskualdeko emakume kirolariak elkartu zituen Larraintzarko Bentak. Asko dira eskualdeko emakume kirolariak, eta asko ere izan dituzten zailtasunak, gizonek izanen ez zituztenak.



Mahai-inguruan lau emakumek hartu zuten parte: Maika Iraizotz, Amaia Ziganda, Irene Larraioz eta Mari Jose Gubia. Kirol eta adin ezberdinetako emakumeak, zailtasun ezberdinak izan dituztenak. Josune Antxo berdintasun teknika-riak gidatu zuen saioa.

“Las pelotaris” dokumentala ikusteko aukera izan zuten hasieran, emakume pilotarien inguruan. Izan ere, gero eta gehiago dira pilotan aritzen diren emakumeak, liga bat ere sortu dute Euskal Herri mailan, berriki amaitu dutena.

Mahai inguruko lau emakumeetatik batekin hitz egiteko aukera izan dugu, Maika Iraizotzekin. Errugbi jokalaria da duela urte batzuetatik, tradizionalki gizonen kirola izan dena, baina Ultzaman emakume ugari egiten duten kirola. Hauxe esan digu:

Nola hasi zinen kirolean eta zein zailtasun izan dituzu emakume izateagatik?

Orain dela 10 bat urte hasi nintzen errugbian. BRT (Baztan Rufby Taldea) taldeko mutilak Ultzamarra etortzen ziren errugbian aritu eta irakastera. Niri asko gustatu zitzaidan, eta bailarako beste emakume batek proposatu zidan nesken talde batean hastea. Bera lehenagotik aritzen zen, eta hori proposatzean, nik ez nuen bi aldiz pentsatu, eta

ordutik jarraitzen dut.

Zailtasun nabarmenik ez dut izan, zerbait gus-tatzen zaizunean ez baituzu zailtasunik ikusten, bai ordea erantzun txarren bat, hauxe esaterako: “neska bat errugbian jokatzeko?” edo “mutilen kirol hori egiten min hartuko duzu”.

Zer nabarmenduko zenuke mahai-inguruan hitz egindakoaz?

Norberaren inguruan hitz egin genuen, kirolean izandako bizipenez, gure istorioez... Josunek hainbat galdera egin zizkigun, eta emakume kirolarion egoera azken urteotan nola aldatu den ere izan genuen hizpide, izan ere mahaian geunden emakumeok egoera ezberdinak bizi izan ditugu. Hala ere, emakumeon egoera ez da gizonena, emakumeek lorpen eta garaipen oso garrantzitsuak lortzen dituzte, baina ez dituzte ia argitaratzen.

Zein ondorio aterako zenuke?

Nahi baduzu, nahi duzun hori lor dezakezu. Nahiz eta askotan dena aurka izan, kirol ezberdinetan aritu... gustuko duguna izan dezakegu zailtasunak jartzen dizkigutenak alde batera utzita. Oso polita izan zen beste emakumeekin elkarbanatu eta haiengandik ikasi izana.

Mugimendua **liburutegian**

Azken hilabeteak mugimenduz beteak izan dira Larraintzarko liburutegian: Patxi Irurzun hasi da bertan lanean eta zenbait ekimen berri estreinatu dituzte; "Liburu ikusezina", "Irakurri, gozatu eta oparitu ekimena... Patxik berak azalduko dizkigu.



Kontatuko diguzu "Liburu ikusezinaren" ekimenaren nondik norakoak?

Liburuaren eguna ospatzeko egitasmoa izan da, zerbait dibertigarri eta desberdin egiteko asmoz. Askotan liburu liluragarri asko ez dira liburutegietan mailegatzeko hainbat arrazoiengatik: bere azala erakargarria ez izateagatik, egilea ospetsua ez izateagatik, modan ez egoteagatik... Gonbidatu egin dugu jendea etxera eramatera liburu ikusezin hauek eta modu horretaz idazle edo istorio berriak ezagutzera. Erantzuna ona izan da, etxera eraman dituzte irakurle askok liburuak, baina orain falta da jakitea benetan gustatu zaizkien liburu edo egile horiek.

Nola aurkitu duzu liburutegia ailegatu zarenean?

Ongi, oro har, baina sailkatu egin behar izan ditut liburu batzuk, berreskuratu beste batzuk, txukundu euro batean salgai daudenak (gaiaren edo generoaren arabera ordenatu ditut)... Bestalde, prestatu ditut Facebook eta blog bat, jendeak ezagutzeko zer egiten dugun liburutegian.

Zein ekimen atera nahi dituzu aurrera?

Momentuz berriro jarri dut martxan irakurle taldea, egin dugu jadanik elkarretaratze bat... Gustatuko litzaidake eskolarekin batera zer edo zer egitea irakurketa bultzatzeko, baita liburuaren aurkezpenaren bat egitea ere liburutegian... Eta baditut ideia gehiago, baina etorri berria naiz momentuz eta ikusi behar dut jendeak zer eskatzen edo behar duen, proposamenei erantzun...

Landa eremuko testuingurua desberdina al da hiriarekin alderatuta irakurtzeko kulturari begira?

Ez dut uste, irakurleak, eta ez irakurleak, eta haien ohiturak (nahiago dituzten generoak, egileak...)

berdinak dira leku guztietan...

Nola doa zure azken eleberriaren difusioa?

Nahiko ongi, oso pozik nago. Abuztuaren bukaeraren argitaratu nuen "Los dueños del viento", nire azken eleberria, argitaletxe handi batekin gainera, eta harrera oso ona izan du, bigarren edizioa egin dute, hemendik gutxira Mexikon agertuko da... Ni zalantzan nengoen, oso eleberri desberdina da orain arte idatzi ditudanekin alderatua (nire lehenengo nobela historikoa da: euskal piratei eta Zugarramurdiko sorginei buruzkoa), baina dena ongi doa, bai. Portzieto, liburutegira ekarri dut, baita nire beste liburu batzuk ere, norbait animatzen baldin bada irakurtzera. Horiek eta beste liburuak eta egileak, jakina!



Marc Olagüe, maiatzeko irabazlearen argazkia

Urtebetetzeak



URKO



AMETS



NAROA



BIDALI ZURE
ALBISTEAK, ARGAZKIAK,
TXUTXU-MUTXUAK, JAIOTZAK...
pu1unpe@gmail.com
HELBIDERA



Zuhaitzak hiltzen?

Globalizazio garaietan bizi gara, den-dena mundu osora zabaldua dago: diru mugimenduak, pertsona mugimenduak (nahiz eta muga batzuekin azkenaldian), eta honekin batera ere, gaitzen mugimenduak. Gaitzen globalizazio garaian bizi gara!



Leku bateko gaitzak beste leku batera eramaten ditugu askotan, eta hasierako lekuan arazo ez zirenak arazo bihurtzen dira hurrengo lekuan. Pertsonengan gertatzen da hori, eta historian adibide ugari ditugu: Kolon eta konpainia Ameriketara joan zirenean, sekulako sarraskia egin zuten indigenen artean, asko ezpataren bitartez, eta beste asko espainiarrek eramandako gaixotasunen ondorioz.

Egungo gaixotasunekin ere gauza bera gertatzen ari da, globalizazio honetan, ona ez dena ere zabalduta egin da mundu osora, eta askotan ez gaude prest kanpoan sortua den gaixotasun bati aurre egiteko.

Landareekin ere gauza bera gertatzen da, gu gara gaitzak leku batetik bestera eramaten ditugunak, eta ondorioak izugarri larriak izaten ari dira, nahiz eta momentuz konturatu ez. Juan Markina aizarotzarrarekin solas egin dugu egungo gaitzen inguruan, eta hainbat zerrendatu dizkigu:

Gaztainondoen gaitza

Gure eskualdean gaitzik larriena da. Liztor batek erasotzen dio, “avispiña asiática” delakoa. Hostoaren malformazio batean nabaritu daiteke gaitza, bertan ar bat sartua dauka, eta honek fotosintesia egiteko ahalmena kentzen dio landareari. Energia ez jasotzearen ondorioz urte batzuk pasata hil egiten dira gaztainondoak. Nafarroa osoan hedatuta dago gaitz hau, baita Ultzama aldean ere.

Ezpelaren gaitza

Zaia da jakitea noraino zabaldua dagoen ezpelari erasotzen dion arra, baina Anue aldean ezpel ugari daude

eta seguruena da han zabaldua egotea, nahiz eta ikerketarik ez den egin oraingoz. Kanpotik etorritako gaitz bat da, eta hemengo ezpelek ez dute defentsarik horri aurre egiteko, izugarri azkar ari da zabaltzen. Harrapari berri bat ekar daiteke Txinatik gaitzari aurre egiteko, baina ez da ziurra oraindik.

Olibondo, mahatsondo eta mertxikondoen gaitza

“Xilleia fastidiosa”. Bakteria hau Italia hego-ekialdeko, Korsikako, Marseillako... zuhaitzak hiltzen ari da, zaharrak direnak bereziki. Balear Uharteetara ere iritsi da, eta kezka handia sortu du, garrantzia ekonomiko handia dutelako landare hauek. Sabiaren bideak itxi egiten ditu gaitzak, eta horren ondorioz hil. Momentuz dagoen irtenbide bakarra motozerra eta sua dira, ez dago besterik.

Makalen gaitza

Intsektu baten eraginez makalak ere hiltzen ari dira. Txinatik etorritako koleoptero motako intsektu bat da erruduna. Leon aldean indarrez sartu da gaitza, eta ikeritzen ari dira noraino zabaldu den eta zabaldu daitekeen.

Pinuaren gaitza

Larri daude pinuak azkenaldi honetan, urteak daramatzate prozesionariaren eraso jasaten, eta azken urteotako uden bero eta lehorteek ere kalteak eragin dizkiete. Dena den, aurten ez da horren urte txarra izan, iazkoa larriagoa izan zen, eta beherantz doa prozesionaria kopurua. Izan ere, bertako plaga izanda, naturak oreka egiteko gaitasuna dauka, eta 10 urtetik behin izaten da prozesionaria plaga bat, baina naturalki jaitsi egiten da hurrengo urteetan.





2017ko martxoa. Gure alderdian, **martxoan** izan ziren jaiotzak eta heriotzak:

JAIOTZAK

ANUE

EGOZKUE

Eider Garralda Villanueva, Javier eta Edurneren semea, 2017ko martxoaren 28an jaioa, *Gartzuntzenean*.

OLAGUE

Alaia Larraiotz Macias, Miguel Angel eta Maria Victoriaren alaba, 2017ko martxoaren 13an jaioa, *Larraiotzen* etxean.

BASABURUA

ERBITI

Odei Perurena Zabaleta, Martin eta Martaren semea, 2017ko martxoaren 21ean jaio zen, *Itturkon*.

ULTZAMA

ALKOTZ

June Arraztoa Latasa, Borja eta Mirenen alaba, 2017ko martxoaren 27an jaio zen.

Ongi etorri jaio berriei eta zorionak beren gurasoei!

EZKONTZAK

Ezkontzarik ez da izan martxoan.

HERIOTZAK

BASABURUA

ITSASO

Francisco Madotz Zabalo, martxoaren 14an, Labetoan.

Gure oroimenean izanen zara.



Edurne, Irati eta Eiderrekin



Odei, bere familia osoarekin



June, gurasoekin



Xabier eta Alaia



Francisco Madotz

NEUMÁTICOS BETELU

Juan Alonso Ortiz

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko harrika, 8A

Aizatorre (Basaburua)



info@neumaticosbetelu.es



646 47 41 66

- Zuk nahi duzun tokira joango gara zure pneumatikoak konpontzera
- Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
- Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR

ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 - 722 766 835



Lizaso



karikolaregoitz@gmail.com

DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com



ZIAURRITZ

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe





IRATI MORENO, ALDAZKO ARTISTAREN KOADROA